


HAURTZARO-GAZTAROAK

Federiko Belaustegigoitia Landaluze, Arabako Laudion jaio zen 1876.eko Irailaren 3an. Katolikoa bai, baina euskaltzaletasunik gabekoa zen familia batean eman zituen lehen pausoak. Laudio eta Bilbo izan ziren denboraldi horretako haren bizilekuak, aitaren maitasun-babespean. Honek, musikarako zaletasun berezia zuenez, joera bera erein zuen semearen barne-muinetan ere.

Garai hartako nazionalista askok egin zuen bezala, Jesuiten Urduñako Ikastetxean eman zien hasiera Batxilergoko ikasketei. Eta, lehenengo ikasturteak aipatutako etxe horretan amaitu ondoren, Madrilerara jo zuen Batxilergoko azken urteak burutu eta Zuzenbidea ikastera. Manuel Azaña eta Bonifazio Etxegarai ikaskide izan zituen hango Unibertsitatean.

Jaloterritik urrun, barnean zeraman euskaltzaletasunaren suak indar hartu zion erraietan. Horrek eraginda, Deustuko Unibertsitatean eman zuen izena Madrilen hasi zituen ikaskizunei segida emateko. Horretaz aparte, Filosofia eta Letretako Lizentziaturari ekin zion, kultur-mundu zabalago eta sakonagoa bereganatzeko asmoz. Sabin Aranaren lagun egin zen, eta,

hau lankide zuela, ikasle-talde bat osatu zuten, euskal arazo eta gaiak ikertzeko xedearekin. Hainbat artikulu eta lan argitara zituen «Baserítara» izeneko aldizkarian; horien artekoa da lan-programa bat eskaini eta lantzen zuen *Nuestras Ideas* idazpurua zeramana. 1897.eko Abuztuaren 29an kaleratu zen artikulu hori, eta berorren ondorioz astekaria debekatu egin zuten agintariek eta Federiko espetxera sartu.



FEDERIKO BELAUSTEGIGOITIA (1876-1947)
Federiko Belaustegigoitia edo Belaustegigoitia'tar Perderika arabarrak, berak sinatu ohi zuen erara esateko, bete-betean hartu zuen Eusko Pizkundearen aroa (1876-1936); baina gerratea (1836-1937), erbestealdia eta gerraondo ankerrak ere ezagutu zituen euskaltzale fin eta eragileak.



GIZARTE-ARAZOEKIKO ARDURA

2 Gazte-gaztedandik abertzaletasuna bere bizitzako eragile eta helburutzat hartu zuenez, hainbat kargu politiko bizkarreratu zioten. Haren ustetan, ardura politikoez, beren egitekoak betetzeaz aparte, euskara eta euskal kultura hedatzea izan behar zuten egiteko nagusitzat. Hori horrela izanik, eta erizpide horien eraginez, hamaika ekintza kultural antolatu zituen Durangon: Biktor Garitaonaindia eta Toribio Alzaga Jaunen antzerkiak emanez, adibidez, euskal dantzak indartuz, abesbatzak zuzpertzuz, etab.

Elizaren doktrina soziala jotzen zuen gizarteko arazoei irtenbidea emateko biderik egokientzat. Horrela, JEL aldizkarian, 1907. urtean argitara zen *Nacionalismo Social* titulua zeraman hitzaldi bat, lehendik Bilboko Euskal Zentruan emana. Mintzaldi honen muina, honako honetan laburbil daiteke: Euskaldun eta nazionalista ziren nagusi eta obrero katolikoek, osatutako elkarteak sortzea izan zitekeen arazo sozialei irtenbidea emateko sistema, eta, hori ezinezkoa izanez gero, ugazaba eta langile katolikoak bilduko zituzten elkarteak.

Elkarte horiek gizartean bete behar zuten helbururik nagusia, euskal kutsuko ideiak kideengan ereitea izango zitzatekeen, eta, ekintza horrekin uztartuta, erlijiozko eta tradiziozko ohiturak bultzatzea. Ideia hauek, haren idazkietan behin eta berriro aipatzen dira, eta autoreak abiapuntutzat jotzen zituen beste bi printzipioekin lotu behar dira: arraza eta nazionalitatea, bi axioma hauek banaezinezkoak direla nonnahi eta beti. Ezinbesteko eragilea zen arrazakontzeptua, katolizismoak Euskadin aurrera egin zezan, eta honek, ekonomi, industri eta merkatal arloko aurrerakuntzak ekarriko zituen ondorioz. Arraza horren ezaugarri eta ñabardurak behin-betikoratzeko bidean jartzeko aukera zitekeen mediorik egokiena, Euskadiri buruzko zientzia eta arte arloko ikerketa eta lanak nazionalizatzea, indartzea eta babestea izango zitzatekeen. Euskal arrazaren ezaugarri berezi horiek finkatzeak ekarriko zuteen, asimilazio- eta sakabanaketa-arriskuak alboratzea eta gainditzea.

EUSKARAREN BERRESKURAPENA

Ezkondu eta seme-alabak izan zituenetik, ikaragarritzko indarra eta garra hartu zuten Federikogan euskara jakin minak eta euskarari eutsi beharraren kontzientziak. Aitak ezagutu bai, baina seme-ari eman ez zion hizkuntza, landu eta zaindu premia guztiz erabakiorra bilakatu zen Federikorengan: betebeharrak bazterrezina zen honentzat bere zortzi seme-alabekin euskaraz berba egin beharra. Euskaraz mintzatu beharraren *Nire etxean euskara nagusi* esaldia bene-benetako goiburu eta lege gertatu zen gurasoen eta seme-alaben artean. Federiko bera izan zen seme-alabentzako lehenengo maisu eta irakasle, eta, lan zail hori zela medio, euskara lantzeko behar-beharrezkoa zen hainbat eratako irakurgai erakargarri eta dibertigarri sortzen eta biltzen ahalegindu zen. Irakaskuntzarako metodo propioak ere landu zituen, eta etxean bertan erabili seme-alabei euskara irakasteko.

GURASOAK

F. Belaustegigoitia Landaluzeren gurasoak: Federiko Belaustegigoitia Gorostiza eta Dolores Landaluze Ikabalzeta. Aita, Laudioko semea; ama, Urduñako alaba. Familia erlijiosoa izan zuen, baina ez euskaltzalea.

Egia osoa da, seme-alabak euskaraz hezitzeko eguneroko ihardunean izan zituen eragozpenak izan zirela, irakaskuntzarako metodo praktikoak idatzi eta gazteak euskara ikastera sustatuko zituzten sistemak aztertzeraz eta sortzeraz Federiko bultzatuko zuten arrazoi eta zio nagusienak.



1909.eko San Balentin egunez, *Por la lengua nacional vasca* titulua zuen hitzaldia eman zuen Bilboko Euskal Zentruan. Euskararen egoera, euskara galtzearen arrazoiak eta euskara berpizteko bideak aztertzen zituen mintzaldia izan zen. Sabin Aranaren garaiko idazki guztietan nabarmentzen zen bezalaxe, botere zentrala, Espainiako legeak eta Konstituzioa ziren euskara eta euskal kulturaren hondamendi tamalgarriaren kausa. Belaustegigoitiak sarritan proposatu ohi zuena da hau: Zentralismoaren aurka, arteak eta zientziak nazionalizatu behar ziren. Honela zioen JEL aldizkarian idatzi zuen artikulu batetan: *Aberri kontzeptua indartzeko, nazio-ideia garatu behar da euskaldunengan. Pentsamolde hori sakondu eta landu, irudimenezko eta artezko jantzi liluragarritz homítu. Aberria, zientzia eta arte nazioaren ondare gisa hartzeak Aberria maitatzera garamatzake* (1907).

LAUDIO (ARABA)
F. Belaustegigoitia, arabarra zen jaiotzez, eta arabar guztien ondareztat zeukan euskararen alde eman zituen bere izerdi beroenak. 1876ko irailaren 3an jaio zen Federiko Arabako Laudion.



Pentsamolde horren eta barne-su horren ondorioa izango litzateke, Euskal Herriari buruzko zientzia eta arte mailako ikerketak eta lanak bultzatzea eta beroriek laguntzea. Zientziek eta arteak Aberriaren gain duten eragin abertzalea jarri behar zen ikuskizun, begien bistan. Horretantxe ahalegindu zen bera.

HAURREKIN

Federiko bere hurrekin: Ezkerretatik eskuinetara: Lurdes, Javier, Balentin eta Iñaki. Ezkondu eta familia bat sortzarekin batera, familiarteko bizitza euskaraz egin beharra biziki sentitu zuen Federikok. Berak gurasoengandik jaso ez zuen hizkuntza txikitatik erein nahi izan zuen seme-alabengan.



EUSKARAREN ALDEKO ESKAERAK

Etengabekoa izan zen Belaustegigoitiak euskararen alde, bai politikan, bai hizkuntz, literatur edo akademi alorretan burutu zuen lana. *Hacia una lucha verdad pro euzkera* titulupean eskaini zuen lana izan zen Laudioko idazle honen helburu guztiak bilduko zituen argitalpena. Hango ideiak honetara labur litezke: Euskara, betiko hizkuntza nazionala denez, defendatu egin behar da; gaztelania, berriz, zapalkuntza, menperaketa, jauntxokeria eta herri baten sakabanaketa sozial eta politikoaren kausante den heinean baztertu egin behar da. Helburu hau izan zen haren bizitza guztiko ekintzen eragile, abiapuntu eta helmuga.

Eskola publiko espainiarra eta ikastegi pribatuetan euskaraz eta euskara irakastea debekatzea, edo Euskal Unibertsitatea eratu ahal izateari debekua ematea kritikatzeko zituen bereziki eta bortizki, izan ere, horiek bait ziren, gaztelaniari ofizialtasuna emanaz, deseuskalduntzea zekarten indarrak,

URDUÑAKO IKASTETXEAN

Gerora sonatua izango zen ikasle askok egin zituen bere ikasketak Jesuiten Urduñako Ikastetxe honetan, batzuk gainera, politikari ezagunak izan ziren ondoko urteetan (Sabin Arana Goiri, eta J. Olazabal Ramery integrista adibidez). Itxuraz, tradizio karlista, integrista eta abertzaleetako familia katolikoetatik zihoazen ikasleak hara. Ondoko argazkian ikus daiteke Ikastetxe hartako ikasle-talde bat.

hiritar bakoitzaren eta gizartearen eskubideak murriztuz eta ez errespetatuz.

Ekintza-gizona zenez eta aktibotasun horrek eraginda, ez zen nahikoa harentzat, euskararen murriztapen-egoera ikustea eta salatzea; aurrera joz, gerorako interbideak proposatzen zituen euskararen herio-zoriari bizibideak eskaini nahiz. Irtenbideak hainbat eratakoak izan zitezkeen, hala ere, honako hau zen berak eskatzen zuena: benetako elebitasuna lortzea, horretarako botere ofiziala (Estatutua) euskal eskuetara ekarriz.



1909. urtean euskararen egoera gaixoak kezkatu eta mintzen bazuen, 1936. urtean ez zuen Federikok baikorrago ikusten bere burua. Bi arrazoi ziren ezkortasun horren zio; alde batetik, oso gutxi ziren beren hizkuntza nazionala benetan berreskuratu nahi zuten euskotarrak eta, bigarren, eskola espainiarrak herritarren gehiengoaren gain zeukan eragin handia ukaezina zen. Eskola Ofizial horrek, haur euskaldunen ama-hizkuntzaren galera zekarren. Hori horrela izanik, euskara ikasteari ekin eta berehala baztertzen zela ikusita, erronka batekin erasotzen zuen Federikok.

Bero-bero, edozein euskaldunek honetan zuen hizkuntz erantzukizuna gogoratu ohi zuen. Eta harago jotzen zuen bere argudioetan, zenbait jokabide kupidagabeki salatuz: *Deshonroso signo de incultura el no estar siquiera iniciado en la lengua de la raza y del país en que se vive, el no sentir el ansia de saberla y el no esforzarse por lograrlo, si no en todo, en parte.* Axolagabekeriaren kalteak salatu ondoren, bestelako proposamenik ere egin zuen: Euskal Herriko erdaldun guztiei «zerga aberkoi» bat ezartzea proposatu zuen, hizkuntzaren ezjakintasun horretan zirauten bitartean behintzat ordaintzekoa. Neurri hori, euskara ikasteko sustagarri eta euskararen aldeko propaganda bezala ikusten zuen.

IKASKIDEAK: B. ETXEGARAI



EUSKARAREN ALDEKO EKINTZAK

Belaustegigoitiaren ekintzek, herri txikietan bakoitzak bere aldetik burutzen zituen ihardunak bateratze lana ere hartzen zuten. Ildo honetan, euskararen aldeko tokian tokiko azalpenak bideratzea eta bultzatzea xedetzat izango zuketena erakunde-zuzendariak sortzea nahi zuen; bestalde, zuzendaritza-lan hori, ikasle taldeek, mendigoizaleek, emakumeen erakundeek, gaztetxo-taldeek, langilekoak, kirolariek, abesbatzek eta beste moeta batzuetako erakundeek, burutu beharko zuketena, haren asmotan.

1908. urtean, honako saio hau egiten zuen: *Haurrak, baserri euskaldunetara bidaltze-proiektua. Euskararik ez dakitenek ikas dezaten*

DEUSTUKO UNIBERTSITATEAN Belaustegigoitiaren gaztaroan Euskal Herrian goi ikasketak egiteko non aukera gutxi zegoen. Deustuko Goi ikastetxe hau zen ikastegirik jasoena, urte batzuk lehenago sortua (1887), Madrilera Zuzenbide-Fakultatea utzi, eta Euskal Herriko arazoetatik hurbilago izatearren Deustukora etorri zen laudiotar gaztea.



eta ezagutzen edo erabiltzen dutenek hizkuntza hobea dezaten. Bizpahiru hilabetetako egonaldiak egingo zituzketen haurrak, eta, baserriarrek, haurrari euskaraz egitearen truke, eguneko erreal bat eskuratuko zuketena. Asmo honetan, geroago metodo egokitzat joko zen bide baten aintzindaritzat har daiteke Belaustegigoitia.

1912. urtean, beste proiektu bat kaleratu zuen Federikok, «Herri eta euskaltzale guztientzako egitasmoa» tituluarekin. Hona hemen, hitz gutxitan, plan horren edukina: Ume euskaldunek, euskarazko irakurketa eta idazketa hobetzea, eta, euskaraz hitz egiten ez zen herrietako haurrentzat, ezagupenen bat erakusten zutenentzako sari lehiaketa antolatzea, hain zuzen.

Euskararen aldeko ardura herrietan ereitea zen Federikoren eginkizunen xedea, beti ere euskara hedatuz eta euskararen izenona indartuz. Horretarako, hainbat eta hainbat bide asmatzen zituen, eta aldizkari eta egunkarietan kaleratzen zituen: Familietan, elizetan, egunkarietan, aldizkarietan eta eguneroko harremanetan, euskara erabil zedila, euskararen aldeko borrokak benetako indarra izan zezan, horixe zen haren ametsa.

ANTZERTI-LANETAN

Euskal kulturaren teorikaria ezetik hizkuntzarekiko kultur ekintzen eragilea izan zen Belaustegigoitia. Lan hauetako bat izan ziren, Durangon (1934-35 urteetan) sakatu zituen antzerti-zaletasuna eta berorren inguruko ekintzak. Argazkia: Urte haietako Antzokia (Astarloa etxea, Durangon).



BIZKAIKO ALDUNDIAN, EUSKARAREN ALDE

Bizkaiko Foru Aldundiak, 1917.eko Abenduaren 5ean, Instrukzio Publikorako Batzordea sortu zuen. Lehenago, Urriaren 4ean, Euskal Kulturarako Batzordea eratzearen aldeko akordioa hartuta zuen. Eusko Alderdi Jeltzaleak, 1917.eko Maiatzeko hauteskundeetan gehiengo lortu izanaren ondorio izan zen erakunde biren sorkuntza. Irakaskuntzaren eta euskal kulturaren gidaritza, bi erakunde horien ardurapean jartzeko oinarri-arauak lantzen ahalegindu zen Belaustegigoitia, eta, Ramon Sota bera ere, bi batzorde horiei indarra emateko eginahaiak eginez.



Instrukzio Publikorako Batzordearen barnean maisu-maistren bidez irakaskuntzan euskara bultzatzeaz gain, defendatzeaz, bi egitasmo garatu-nahia zeraman bere baitan Federikok: Alde batetik, lehenengo mailako irakaskuntzan marrazketa irakastearen aldekoa, eta, bigarrena, hastapen mailarako geografia euskarazko ikasliburu batean lantzekoa. Testu hau ez zen argitara eman, eta desagertu egin zen gainera. Bi proiektu horiek, tamalez, ez ziren azken bururaino eramán, izan ere, lana eskatu eta aurkeztu arte igaro zen epealdian, 1919. urtearen erdialdetik hasita, galdu egin bait zuten gehiengo abertzaleek Bizkaiko Foru Diputazioan.

Kulturarako Batzordearen barruan, Euskarako Atalean kide izan zen Belaustegigoitia. Azpibatzerde horretako lagun bezala, aurrera atera zuen emaitzik garrantzitsuena, euskal literaturaren aldeko proiektuari buruzko akordioa izan zen (1919-Ekaina-20). Euskaltzaindia izan zen, proiektu hau bere ardurapean hartu zuen erakundea; baina 1923. urtean, Diktadurapean, Aldundiak bere dirulaguntza emateari utzi zionean, bertan behera gelditu zen egitasmoa. Euskal literaturarekiko laguntza ofizialen aldeko politikaren garrantzizko lekuko bat da hau noski, zoritxarrez duela gutxi arte, jarraipenik izan ez baldin badu ere.

«NACIONALISMO SOCIAL» (1907)

Jel aldizkariak kaleratu zuen Belaustegigoitiaren idazlan hau. Euskal abertzalegoaren baitan arazo sozialak ere zegokion lekua izatea nahi zuen idazleak, eta langile-ugazaben arteko gatazkei erantzun teoriko eta antolamenduzkoak (sindikatu, elkarte, etab.) bilatu behar azpimarratu zuen Federikok, beti ere doktrina kristau-sozialaren ildotik.



EL NACIONALISMO SOCIAL

PREÁMBULO DEL AUTOR

Hace ya más de un año que á los socios del Centro Vasco de Bilbao fué dado á conocer este trabajo, en que al mismo tiempo que se desenvuelve el amplio y no explanado campo de estudio del *nacionalismo social*, se aboga por una *acción social* preferentemente vasca, á la cual los amantes de nuestro país debieran con especial predilección consagrarse.

Si sus exhortaciones no han caído en el vacío, es lo cierto que empieza á manifestarse por los nacionalistas un interés hasta ahora negado á esta clase de asuntos, y síntomas recientes de lo mismo son la moción del señor Urizar acerca de la provisión de empleos provinciales y la serie de artículos acerca de la acción social vasca, por *Kizkita* en *Gipuzkoana* empezada.

Tales circunstancias hacen que este trabajo encuentre el ambiente propicio y de actualidad que le hacen oportuno y por lo que voy á darle á conocer en esta revista primero y después en folleto separado.

Supuesto lo cual y puesto que no ha de caer exclusivamente en manos nacionalistas, sino que también parará en las de otros vascos y no vascos, debo añadir algunas cortas explicaciones. De ningún modo vaya

EUSKALTZAINDIA

1918. urtean eta Eusko Ikaskuntzaren eraginez, Oñatin ospatu zen Kongresuaren ondorioetariko bat izan zen Euskaltzaindiaren sorrera. 1919. urtearen azken aldera, Akademiako Urgazleen aukera egin zen. Federiko Belaustegigoitia izan zen Bizkaiko Foru Diputazioak bere ordezkaritzat izendatu zuena. Orduan ere hainbat eta hainbat egitasmoren altxorra izan zen Federikoren irudimena. Kaleratu, kaleratu ere egin zuen hamaikatxo; baina, horien artean eta hizkuntz arloa kontutan hartuz, interesgarriena, euskararen baterakuntzarako gauzatu zuen lana izan zen, noski.



Lege-gizona zenez, Euskaltzaindiaren iharduera emankorragoa izan zedin, Erakunde horren Barne-Arautegia berak landu zuen. Alderdi politikoez gaineko erakunde bat zela Euskaltzaindia defendatzen zuen Federikok, izan ere, aldiko giroaren ondorioz, eztabaidagai bilakatu bait zen Euskaltzaindia, politikoki neutralegia zela ziotelako batzuek eta, beste batzurentzako, bertako kideen ideologiaren ezberdintasuna ugarietia omen zelako. Euskaltzaindiak bere helburuak lor zitzan eta aurrera jarrai, Belaustegigoitiaren ustez, euskaldun guztien erakunde honekiko adostasuna ezinbesteko baldintza zen; aranatarrentzat, ordea, akats handi bat zen neutralitate hori. Indibiduaikeriek xaxatzen zituzten euskaltzaleen arteko etengabeko eztabaida antzuei amaiera eman eta euskara eraberdin baten beharrianari erantzuteko, erabat premiazkoa zen, Belaustegigoitiaren ustetan, artekari bat izendatzea, eztabaida horiek indarrean zeuden bitartean guztiz ezinezkoa bait zen euskararen aldeko benetako borroka eginbidean jartzea eta arrazoizko ekintzei aurrera eragitea.

EUSKARAREN AURKAKO DEBEKUAK (1902)
Madrileko Irakaskuntz Ministraritzatik kristau-ikasbidea euskaraz ematea debekatu egin nahi izan zen. Federikok 25 urte zituen hau erabaki zenean. Egia esan, erabakiaren gogorrak ito zuen asmo: Gobernuak berak baztertu behar izan zuen hizkuntz politikaren modu trakets hau.

EUSKARAREN BATERAKUNTZAN SUSTATZAILE

Jakina denez, Euskaitzaindia sortu baino lehenagokoak dira euskararen baterakuntzarako lehen urratsak. Hala ere, erakunde honen eraikuntzak indarberritu egin zuen arazoarekiko ardura, nahiz eta ez hori aski izan, eta gero berrogeitamar urte luzatu eztabaida, *batua* deituari onarpen ofiziala eman zitzaion arte (1968). Eztabaida horren aintzindari izan zen Belaustegigoitia: 1919an *La unificación del euzkera* tituluarekin azaldu zituen bere eritziak. Bere diruz kaleraturiko lan hau garaiko ehun euskalariri bidali zion, adituen eritziak jasotzeko asmoarekin.

KULTUR BALIOAK ORO

«Aberria, zientzia eta artea nazioaren ondare gisa hartzeak Aberria maitatzera garamatzake» idatzi zuen Belaustegigoitiak (1907). Abertzaletasuna «irudimenezko eta artezko jantzi liluragarri hornitu» beharra ikusi zuen. Hizkuntzaren ondoan arte plastikoek ere zeregin askatzailea zutela uste izan zuen. Argazkia: Euskal Pintura-Eskolako R. Arrueren «Karta-Jokua».



Federiko, beronen idazlanetan azaltzen denez, euskalkien oparotasunari irtenbide bat ematearen aldekoa izan zen, eta, horretarako, literaturarako eta eguneroko harremanetarako euskalki bakar bat onartzea beharrezkoa zela defendatzen zuen. Literatur arloan hedapenik handiena lortutako euskalkiaren indarrez, batasuna, beste gabe, lortuko zelako ustea zutenen aurka, euskalkiek, berez, gero eta sakabanaketa handiagoa hartzen zutelako argudioa kontrajartzen zuen Belaustegigoitiak.

ESKOLA-TALDEA (1921)

Hizkuntzarentzat eskola-mundua irabazi-beharra behin eta berriz aldarrikatu zuen Belaustegigoitiak eta baita horretarako Bizkaiko Aldunditik arauak eta erizpideak zabaldu eta Administrazioetik ahaleginak egin ere. Baina baliabideak beti gertatzen ziren eskasak, Hegoaldeko 401.941 alfabetatugabeak eskolatzeke (1916).



11

1920. urtean, batasunari buruzko arau multzo bat landu zuen, eta *Arau Nagusiak* titulupean eman zuen argitara. Geroago, erizpide bateratzaile zehatzagoak ezartzen zituen *Euzkerearen batasunatzaz* (1922) idazlana kaleratu zuen, aurreko beste lan hartakoak onduz. Euskalkien aniztasunak dakartzan kalteak kontutan hartuta, euskaldun guztiek ikasi beharko luketen literatur hizkuntza bakarra eratu beharko litzatekeela uste zuen Laudioko semeak.



Baterakuntzaren beharra onartu ondoren, beste pauso bat eman behar zen, hau da, euskalki bateratzaile horren aukera edo eraketa egitea alegia. Honako erizpide hauek izan zitezkeen oinarrizkoak, bigarren urrats hori eman ahal izateko: Batasun-eredua hobestean ez ziren izango ezinbesteko erizpide, hautatua onena izatea, edo berorren antzintasuna, ezta literatur hedapena bera ere. Bazegoen, haren eritzitan, fruitukorragoa izan zitekeen beste kriteriorik: Hautatuak izan zezakeen gainerako euskalkiekiko antz edo gertutasuna, izan ere hurbiltasun honek emango bait zion euskara horri bere batugarritasuna, benetako ulergarritasun amankomuna. Hara eta hona jo ondoren, eta hamaika arrazoi zirela medio, gipuzkera onartu zuen eredu egokien bezala.

RAMON SOTA

1917ko hauteskondeen ondoren abertzaleek garrantzizko aginteguneak irabazi zituzten; horien artean Bizkaiko Diputazioan lehenengo aldiz beren nagusitasun politikoa. Ramon Sota jeltkidea bilakatu zen Aldundiaren Lehendakari. Gehiengo politiko horri esker, beste zereginen artean, euskal irakaskuntzarekin ardurarik handienarekin jokatu zen. Federikok Aldundiko Batzordeetan jardun zuen lanean.

IRAKASKUNTZ METODOEN BERRITZAILE

Mende honen lehenengo urteetan euskarari suertatu zitzaizkion erronka berrien aurrean, ekintza didaktiko-pedagogikoz erantzuten saiatu zen Belaustegigoitia. Eguneroko ogibidea, burdin lanean ziharduen industria bateko kontseilari izatea bazen ere, euskara irakasteko metodo berriak sortzera eman zen, pedagogi mailan aurrerabide nabarmenik ez ekarri arren. Hala ere, esan daiteke, 1936. urtea arte pedagogian izan dugun maisurik aurrerazaleenetariko delako bera.

LA UNIFICACION DEL EUSKERA (1919)

Belaustegigoitiak guztiz argi ikusi zuen hizkuntza estandar baten betekizuna, eta suharki defendatu zituen hizkuntz batasunaren xedeak eta haietarainoko bide ustez onenak. Liburua hitz hauekin hasi zuen: «En la lucha que el euzkera sostiene por su vida y propagación, hay un problema importantísimo sobre el que debe incesantemente llamarse la atención de los vascos: el problema de la diversidad dialectal y la necesidad de acabar con la actual anarquía mediante la adopción de un dialecto destinado a ser el único en la literatura y en el habla».



Bestalde, argi eta garbi esan behar da, ez zela heldu Luis Eieizalde, Eduardo Landeta edo Aita Altzo-ren mailara.

Euskaldun guztiek euskara jakin beharko zuketela baieztatzen zuenean, oso gogotan zeuzkan hizkuntza berri bat ikasteak bere baitan dituen eragozpenak. Horra hor, bere arduren oinarriak. Bestalde, behar-beharrezkoa zen metodo berri eta egokia eskuartean izatea ikasle berriei ikas-lanean lagundu ahal izateko. Haren metodoek, aktibotasuna zuten beti abiapuntutzat, eta mintza-praktika zen funtsezkoena hizkuntzaren ikasketan aurrera egin ahal izateko. Ondorioz, ikasleak, oinarrizko ezagupenaz jabetu ondoren, mintza praktikari heldu behar zion lehenbaitlehen. 1912. urtean argitara zuen *Euskerazko ikasbide erraza* izeneko idazkian aztertzen zuen metodoak, ikasle gazteak euskara hilabeteren buruan nola ikas, zuen helburutzat. Euskarari zegozkionetan, beti baikortasunera jotzen zuen Federikok.

¿QUIERE USTED HABLAR EN EUZKERA?

Hizkuntzaren didaktikak leku nabarmena du Belaustegigoitiaren lanetan. Idazlan teorikoan ondoan, irakas-tresna praktikoak sortzen saiatu zen autorea, hizkuntz erabilpen sozialaren muga hertsia gaintitu nahiz. Ikasketa aktibo baten aldekoa ageri zaigu Federiko: «Por el contagio de la desacreditada pedagogía social española probablemente, se abusó entre nosotros de gramáticas y métodos desmesurados...».

14

1919. urtean kaleratu zuen *Por la lengua nacional vasca* izeneko argitalpenean, metodoek, etengabeko berriztapen-prozesu batetan probasaitotan egon behar zutela baieztatzen zuen, era honetan, ikasleak mintza-praktikara jo zezan: *¿Quiere Vd. hablar en euzkera?*

Euskara praktikatu eta ikasteko beste metodo berrizaile bat ere bururatu zitzaion Belaustegigoitiari. Horretarako, *Euskal Loteria* izena zuen tresna berri eta bitxi bat kaleratu zuen, betiko zozketa-sistemaren kalko bat zen, kartoi-multzo batez baliatzen zen metodoa alegia.

ESKOLA-LIBURUAK

Honelako eskola-liburuak sortu eta irakas-sistema berriak hedatzea izan zen Belaustegigoitiaren kezketako bat, izan ere bere haurrei euskara irakatsi eta beraiek euskaraz eskolatzen egindako ahaleginek ongi erakutsi zioten haiako argitalpenen premia.



Gure idazle honen nortasuna definitzen duen ezaugarriarik behinena euskararen aldeko berrikuntzen grina da. Hona hemen, laudiotarrak aipatu ohi izan zituenetariko metodo-lagungarri batzuren aipamena: Karta-idazketa lehiaketak, euskarazko kromoak, antzerkia (R.M. Azkue-ren lana hartzen zuen eredutzat), fonografo eta filmeak, egunkariak, aldizkariak, etab....

Belaustegigoitiak argitaratu, defendatu eta hedatu zituen ideia, metodo eta ihardunbideen azterketa egitean, gero gure ikastoletan metodo pedagogiko berri bezala hartu diren pedagogi prozeduren aintzindari izan zela ageri zaigu, nabari.

BIZKAIKO AUZO-ESKOLAK (1919-1936)

Aldundiak eta Udalek eraikitako herri-eskola hauetan babes ona aurkitu zuen euskarak: 1933-34eko ikasturtean 6.321 eskolatzen ziren ikastetxe hauetan. E. Landetaren gidaritzapean eraikitako irakastegi hauen antolamenduan jardun zuen Belaustegigoitiak ere.



EUSKAL ESKOLAREN BILA

Abertzaletasunak bere baitan zeraman doktrinari jatorri jarraituz, euskal eskola berriaren ereduaren sustatzaile izan zen Federiko Belaustegigoitia. Eskola ofizialetan ematen zen irakaskuntz moeta aztertzeak, eskola horietako maisuek euskarareriko zuten jarrera etsaia ikusteak, maisu-maistrek euskara ez zekitela egiaztatzeak, arrazoi guzti hauek, irakaskuntza ofizialetik at, euskal eskola sortu beharraz komentzitu zuten Federiko.

Eskola publikoetara seme-alabak bidali eta eskola haren gabeziak beren aldetik betetzen ez zituzten gurasoei egiten zien dei idazle arabarrak. Eskola publikoetan, moral- eta aberri-baloreak bazterrera uzten zirenez, behar beharrezkoa zen, gurasoek, hauen elkarrekin eta erlijiosoek gidatuko zituzketen ikastetxe libreak sortzea, garaiko ikastetxe publikoek euskara beren irakas-programetan sartzen ez zuten bitartean. Ideia hauek zirela medio eta ideologia horren eraginez, *Eusko-Ikastola Batza - Federación de Escuelas Vascas*

ABERRI-EGUNA (1932)

Sabin Aranaren adiskidea eta lankidea izan zen Belaustegigoitia, eta mugimendu jeltkidea indartzen ahalegin onak eman zituen. Lehenengo Aberri-Eguna ospatzean (1932) argitaraturiko liburutik jasotzen dugu iragarki hau (Mz. Ortiz-ena): bi Belaustegoiitarrek dituzte idazkiak liburu honetan, Benignok (erdaraz) eta Pantzeskak (euskaraz).

erakundea sortu zen, 1932 eta 1937. urteetan antolatutako hamalau euskal eskolen baterabidea izan zena eta Bizkaiko hainbat eta hainbat herrik ikastetxe euskaldunak izatea ekarri zuena. Euskal eskolak izateaz gain, erlijioa irakatsiko zen ikastegi berri horietan, izan ere II. Errepublikak eskoletan laizismoa ezarri zuenetik ez bait zen erlijiorik ematen eskola publikoetan.

Belaustegigoitiak proposatzen zuen eredu hura, zalantzarik gabe, hirurogeigarrenetan eraikiko zen Ikastolen aurrekina izan ziren.

15



EUSKARA, HAURRAK ETA GAZTERIA

Bi alde izango zituzkeen euskararen berpizte-lan horretan gazteek burutu behar zuten egitekoak: «Katez lotuta dagoen hizkuntzaren» askatasuna lortzea, batetik, eta, bestetik, «euskara, ikasle-taldean ikur eta bereizgarri izatea».

1918 eta 1919. urteetan eta *Umetxoentzat* titulupean, ipuin sail bat argitara zuen *Euskal Eснаlea* aldizkarian, tradiziozko baloreak haurrengan ereiteko asmoarekin. Oso ipuin ulerterrazak eta hunkigarriak ziren eta garai hartan indarrean zegoen moral katolikoak defendatzen zituen baloreak hedatzea eta indartzea zuten xedetzat: Jainkoaren borondatea bete beharra, gurasoekiko maitasuna eta

begirunea, lagun gaiztoekin ez nahastea, handikeriak uztea, ikasketekiko ardura, izadiarekiko maitasuna, etab.

Hamaika bide asmatu zituen Federikok, hurrek eta gazteek euskara ikas zezaten: Euskara irakasteko neska euskaldun-taldeak sortzea, edo haurrak baserrietara bidaltzea, jolasetarako euskal ume-taldeak antolatzea, etab. Gazteriarentzat ere asmatu zituen ikasbideak, aberriarekiko maitasun-sentimendua indartzeaz gainera, euskara ikasteko metodo pedagogikoak proposatuz. Prozesu horren azken-muga, euskararen aldeko «derrigorrezko soldadutza» ezartzea izango zen, era honetan, hizkuntzaren eta aberriaren aldeko sentimenduak bateratzea lor zitekeelakoan.


EUSKAL-LOTERIA (1936)

Hizkuntzaren didaktika laguntzeko asmatu zuen Federikok *Euskal Loteria* hau. Lehen edizioa berehala agortu zen, eta bigarrena ere laster prestatu zuen (bizkaieraz bata, gipuzkeraz bestea). Metodoaren abantailak autoreak berak azaltzen zituen: atsegina zen, hizkuntz pedagogia modernoari lotua, irakasle-beharrik gabekoa, etab.



KANBO (Lapurdi)

1937ko ekainean erbesterako bidea hartu behar izan zuen Federikok; lehenengo erbestealdia Euskal Herrian egin zuen batez ere, Kanbon eta Angelun. Argazkia: Kanboko herria.



EUSKAL FAMILIA ETA ERLIJIOA

Kristautasunak bizitzari buruz duen pentsakera ortodoxoenari jarraituz, familia da bizitzako zutaberik nagusiena eta instituzio honetan hartzen dute oinarri, bai euskarak eta bai euskal gizarteak ere. Ildo honetan, honako hau esan ohi zuen: «Gaur egun, euskara da, gure herriak familian eta gizartean dituen kristau-ohituren artean zaintzailerik jatorrena». Euskara galtzeak, familiaren sakabanaketa dakar, eta, ondorioz, ohizko euskal morala, kanpotikako ideia modernoek ordezkutzen dute.

Familia, erlijio eta euskara hartu behar dira euskal gizartearen eraikuntzarako funts oinarrizkoentzat. Horiek horrela, familiak gorde behar duela bereziki euskara, esan ohi zuen, eta, pentsamolde hori garatuz, emakume eta gazteei buruzko aipamenak egingo zituen sarritan, hizkuntza nazionalaren defendatzaile nagusienak direla baieztatuz, eta hizkuntza nazional hori, ama-hizkuntza gisa hartzen zuela.

17

CASABLANCA (Marokko)

Hitleren armadak Frantzia hartu zuenean, iparraldetik ihesi irten beharra izan zuen Belaustegigoitiak. Afrika libreria joan zen: Oran, Casablanca. 1940an azkeneko hiri honetan elkartu zen beste hainbat iheslarirekin. Handik bidalitako postalik ere gordetzen da oraindik familiartekoen artean.



Gai honi zegozkionetan, etxekoandreengan ezartzen zuen aparteko erantzukizuna, izan ere, har zitzaketen jarreraren arabera eta aberatsek egin ohi izan dutenaren antzera, kanpoko moden eraginaren pean jausten badira, berauek izan bait daitezke euskararen hilobi hotz. Oso gogor salatu ohi zuen heziketa-sistema: «Neskentzako kolejoek duten eragin kaltegarria», kanpotikako eta euskararen aurkako hezkuntza ezartzen bait dute eta frantserari eta Frantziako ohiturei lehentasuna ematen. Laudoriozko aipamenak egin ohi zituen euskararen aldeko ahaleginetan ziharduen «Emakume Abertzale Batza» erakundeari buruz. Honako hau zen Belaustegigoitiaren gogoeta-modua: «Euskararik ez dakien emakumeak, familia erdalduna eta kanpotiarra dakar».

Idea hauek indartzeko, *Historia de una Mujer* lana argitara zuen 1916. urtean. Abertzaletasunez jositako alegia bat da, eta, euskara zela medio, andre bat salbatu zela kontatzen duena; ondorioz, euskal arrazaren ohizko baloreak gordetzea gertatzen dela ematen du aditzera.

Erljioari buruzko aipamenak, etengabekoak dira Federikoren lanetan, erlijioa eta aberria erabat

uztartuta ikusten bait zituen: «Gu Euzkadirentzat eta Euzkadi Jaungoikoarentzat».

Errepublikako eskola-borrokan zuzenean hartu zuen parte. Euskal Herri osoan zehar, laizismoaren kontrako protesta ugarien artean abertzale-taldeak ere borrokatu ziren. Seme-alabentzako ikastetxeak aukeratzeko eskubidea dutela gurasoek eta Estatuari ez diola eman inortxok ere, eskolez baliatuz, proselitismo politikoa eta akonfesionala egiteko aginterik: hori zen Belaustegigoitiaren tesia. Gainerako idazle abertzaleek bezala, Belaustegigoitiak ikastetxeak libreki aukeratu ahal izateko eskubidea defendatu zuen. Pentsamolde honi jarraituz, *Nacionalismo y Confesionalidad* kaleratu zuen 1931. urtean, «B. Landa» goitizinea erabiliz.



ERBESTEALDIA ETA HERIOTZA

Garrantzi handikoa eta ondorio ugarikoa izan zen 1936. urtea, bai Belaustegigoitiarentzat, eta baita beronen familiarentzat ere. Unerik argiengan zegoen intelektualki laudiotarra, *Euskal Loteria* izeneko metodo berria aldi honetan sortu izanak aditzera ematen duen bezala eta, batez ere, *Hacia una lucha verdad pro-euzkera* argitalpenak begien bistan jartzen duen gisan. Azken idazki hau, bere bizitza osoan zehar euskararen eta euskal kulturaren alde kaleratu zituen argitalpen guztien laburpentzat har daiteke.

1936.eko Abenduaren 14ean Eusko Jaurlaritzak sortutako Kulturaren

ALBISTE HOBEEN JAKIN-MINETAN Egunkaria, Belaustegigoitia, irratia eta Sabin Arana, eta «Licencia». Gerraondo zital hartan ere albiste hobeen irrika eta itxaropena ezin ziren ito. Arana Goirik bizitutako suari eutsi nahi izan zion orduan ere Federikok; Hegoaldera itzultzean, erbesteko Irratien leihatila irekia izatea ez zen samurra. Ongi ordainduta (garaiko 12 pta.) eta ahal zen moduan lortu behar ziren horretarako baimen administratibo-politikoak. Hona horren adibide bitxia: *Licencia para uso de aparato Radio-receptor en domicilio particular* (30 de abril de 1943).

aldeko Kontseiluko kide izendatu zuten. Kontseilu horrek zuen «Euzkel Irakasletza» sekzioan hartu zuen parte, lana garatzeko gudateak zekartzan eragozpenez ongi jabetuta bazegoen ere. Baina, egunak latzak ziren eta behar larriagoen zama bizkarreratu beharra izan zuen. Presoei laguntzeari ekin zion, beste gertakari gorriagoak jausi ziren arte: Durangoko herriaren bonbaketan alaba galdu zuen. 1937.eko Ekainean, erbestera bidea hartu zuen; lehenengo, Cap Breton-era, gero Kanbora eta, azkenik, Angelura. Hemen zegoela jaso zuen seme baten heriotzaren albiste latza.

19



Aldi honetan, nazionalismoaren aldeko arduraz eta musika-doinuez betetzen zuten barnean zeraman hutsunea. Angelun bizi zela, erbesteko urte haietan E.A.J.ren egoitza zen «Villa Endara»ra hurbildu zen. Erbeste honetan ezagutu zuen Orixe; baina 1940. urtean, alemanak heldu zirenez gero, berriro ere ihes egin beharra: Marsella, Oran, eta azkenik Casablancara.

Federikoren emaztea eta semealabak Areetara itzuli ziren eta beren senar eta aita aberriratzeko beharrezkoak ziren baimenak eskuratzeko ahaleginak egiteari ekin zioten. 1941. urtea da. Egindako ekintza politikoak zirela medio, ezarri nahi zitzaion zigorrak hau besterik ez zioen, zorionez: «...15 años de inhabilitacion para cargos políticos y sociales».

1896. urtean, barne-irudimenean zeraman Euskadik eta itzultzean haren begiek ikusten zutenak ez zuten inolako antzik. Euskaltzaindiaren

etxera jotzen zuen bere barnemina arintzera, horretarako R.M. Azkuerekin (honen iloba txiki batekin zegoen ezkontuta Benigno Belaustegigoitia); beste euskaltzale-abertzale zaharrek (besteak beste, Solaun eta Arruzarekin) elkartzen zen frankismoaren garaian itzaropena bizten zuten Londres eta Parise Irratietako berriak jarraituz. 1943. urtean, gaixotasunaren hatzaparretan jausi, eta 1947.eko uztailaren 23an eman zuen azken arnasa betidanik eta barru-barrutik euskaltzale suhar eta saiatu izan zen Federiko Belaustegigoitia arabarrak.



BERRIZ ERE ETXEAN

Atzerritik etxera itzultzean, Euskadi garaitu bat aurkitu zuen. Kargu sozial edo politikoetarako eskubiderik gabe, osasuna galduta edo euskaltzalegoa ezkutatzera bortxaturik ikusita, azken urteetako tristezia handia izan zen Federiko Belaustegigoitiarentzat, nahiz eta R.M. Azkue bezalako adiskiderik ez falta izan.